

NAFARROAKO IKUS
ENTZUNEZKO SEKTOREKO ENPRESA ETA
PROFESIONALEI BURUZKO AZTERLANA

Amaierako txostena

AURKIBIDEA

1.-	AURKEZPENA	3
2.-	APLIKATUTAKO LAN METODOLOGIA	4
3.-	NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREN ERREALITATEA	9
4.-	NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREKO ENPRESA ETA PROFESIONALEI EGINDAKO KONTSULTAREN EMAITZAK	15
5.-	SEKTOREAREKIKO HAUSNARKETA LABORATEGIAREN EKARPENAK	31
6.-	ONDORIOAK	35

1. AURKEZPENA

Nafarroako Foru Gobernuaren Kultura eta Kirol Departamentuaren Ikus Entzunezko Proiektu Estrategikoen eta Digitalen Atalak azterlan bat sustatu du, Nafarroako ikus entzunezko sektoreari buruzko informazioa biltzeko xedearekin, ehun produktiboan eta zehazki honako hauetan oinarrituta: sektorea osatzen duten enpresen kopurua, egiten dituzten jarduerak, enplegu datuak, fakturazioa eta gastua. Datu fidagarriak lortu nahi dira, sektorearen bilakaeraren eta haren indargune nahiz ahulguneen jarraipena egiteko.

Ikerpartners enpresak egin du azterketa, eta txosten honetan aurkezten dira azterlanaren emaitza nagusiak.

Eskerrik asko Atalari, CLAVNA eta NAPAR eragile sektorialeiei eta proiektuan parte hartze aktiboa izan duten profesional guztiei lankidetzagatik, balorazioengatik eta ekarpenengatik, horiei esker emaitza eta ikaskuntzak osatu ahal izan baitira.

2. APLIKATUTAKO LAN METODOLOGIA

Azterlan honetan aplikatutako metodologia 5 esku hartze ardatzetan oinarritu da:

1. Hasierako lan tailerra sektoreko eragileekin eta azterlanaren arduradunekin
2. Bigarren mailako informazio iturrien analisia
3. Prospekzioa
4. Hausnarketa partekatuaren laborategia
5. Amaierako txostena idaztea eta aurkezten publikoa ¹

Hasierako lan tailerra sektoreko eragileekin (CLAVNA eta NAPAR) eta azterlanaren arduradunekin (Atala).

Egindako lanak:

- CLAVNA eta NAPAR eragileen konpromisoa eta parte hartze aktiboa lortu dira enpresek/bazkideek inplikazio/parte hartze handiagoa izateko azterlanean (Eta datuen adierazgarritasun handiagoa).
- Ikus entzunezko sektorea osatzen duten jarduerak identifikatu dira (behaketa eremua eta haren kodifikazioa), Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren (NKPE) esparruan aintzat hartu ziren eta aldez aurretik azterlanaren arduradunekin kontrastatu ziren jardueren hautaketan oinarrituta.
- Aholkularitza taldeak datuak biltzeko egindako galdetegia balioztatu da.
- Galdetegia jasoko duten enpresa eta profesionalen informazio oinarria identifikatu da.

¹ Abenduaren 19rako aurreikusi da.

Bigarren mailako informazio iturrien analisia

Egindako lanak:

- Informazio hau eskatu eta aztertu da:
 - **Nafarroako Foru Ogasuna:** Sortutako BEZaren zerga oinarria eta BEZ kengarriaren zerga oinarria (inbertsio onasunei dagokiena xehatzen), identifikatutako EJZ epigrafeetan alta emandako aitortzaileei dagozkienak. Foru Ogasunak erabiltzen dituen EJZ kodeen eta azterlanaren xede izan diren JESN kodeen arteko lotura identifikatzen saiatu dira, Zerga Agentziaren bihurgailuaren bidez, eta emaitzak honako taula honetan jaso dira:

EJZ - JESN KODEEN LOTUREN TAULA

ENPRESAKO EJZ	EJSN KODEAK
3. dibisioa	
35. taldea. Material elektronikoaren fabrikazioa (ordenagailuak izan ezik).	
355. TALDEA. HARGAILUEN, ERREGISTRO-GAILUEN, SOINU ETA IRUDIAK ERREPRODUZITZEKO GAILUEN, DISKOAK GRABATZEKO GAILUEN ETA ZINTA MAGNETIKOEN FABRIKAZIOA.	
355.2 epigrafea.- Soinuaren, bideoaren eta informatikako euskarri grabatuen edizioa.	5821 Bideojokoen edizioa 5829 Beste programa informatiko batzuen edizioa 5912 Zinematografia postprodukzioko, bideoetako eta telebista saioetako jarduerak 5920 soinu grabaketako eta musika edizioko jarduerak
9. dibisioa. Beste zerbitzu batzuk	
96. taldea. Aisialdi eta kultura zerbitzuak.	
961. TALDEA. ZINEMATOGRAFIA FILMEN EKOIZPENA ETA HORREKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK (BIDEOAK BARNE).	
961.1 epigrafea.- Zinematografia filmen ekoizpena (bideoak barne).	5912 Zinematografia postprodukzioko, bideoetako eta telebista saioetako jarduerak 5915 Zinematografia ekoizpeneko eta bideoetako jarduerak
961.2 epigrafea.- Zinematografia film edo zinten bikoizketa, sinkronizazioa eta muntaketa, betiere ez badu enpresa ekoizleak berak egiten.	

ENPRESAKO EJZ	EJSN KODEAK
961.3 epigrafea.- Zinematografia film edo zintetarako dekorazio eszenikoak, betiere ez badu enpresa ekoizleak egiten.	Ez da sartzen azterlanean
962. TALDEA. ZINEMATOGRAFIA FILMEN ETA BIDEOEN BANAKETA.	
962.1 epigrafea.- Zinematografia filmen banaketa eta salmenta, zinta magnetoskopikoaren euskarriko filmak izan ezik.	5917 Zinematografia banaketako eta bideoetako jarduerak
962.2 epigrafea.- Zinematografia filmen handizkako banaketa eta salmenta, zinta magnetoskopikoaren euskarrian.	
963. TALDEA. ZINEMATOGRAFIA FILMAK ETA BIDEOAK EMATEA.	
963.1 epigrafea.- Zinematografia filmak eta bideoak ematea (2).	5914 Zinematografia erakusketako jarduerak
963.2 epigrafea.- Aire zabaleko zinematografia filmak eta bideoak ematea.	
963.3 epigrafea.- Zinematografia filmak eta bideoak ematea establezimendu iraunkorretik kanpo.	
963.4 epigrafea.- Zinematografia filmak eta bideoak ematea aurreko 963.1, 963.2 eta 963.3 epigrafeetan zehazten ez diren establezimenduetan.	
964. TALDEA. IRRATI HEDAPENENKOA ETA TELEBISTA ZERBITZUAK ETA TELEBISTA SEINALEAK LOTU ETA TRANSMITITZEKO ZERBITZUAK.	
964.1 epigrafea.- Irrati hedapeneko zerbitzuak.	6010 Irrati hedapeneko zerbitzuak
964.2 epigrafea.- Telebista zerbitzuak.	5916 Telebista programen ekoizpen jarduerak 5918 Telebista programen banaketa jarduerak 6020 Telebista programazio eta emanaldien jarduerak
964.3 epigrafea.- Telebista seinaleak lotu eta transmititzeko zerbitzuak.	6020 Telebista programazio eta emanaldien jarduerak

○ **Nafarroako Estatistika Institutua (Nastat):**

- **DENA:** Azterlanerako hautatutako EJSN kodeen Nafarroako enpresa eta lokalen kopurua, 4 digiturekin, enplegu mailaren, udalerraren eta forma juridikoaren arabera, 2019, 2020 eta 2021 urteetarako.

- **Nafarroako kotizazio kontuen eta Gizarte Segurantzako afiliazioen** kopurua adierazitako EJSN jardueretan; zehazki, Nafarroako Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden kotizazio kontuen eta horien bazkideen informazio osoa jasotzen duen mikrodatuen fitxategia eskatu da, jardueraren (EJSN), enplegu mailen eta kokapenaren (udalerrria) arabera, baita Nafarroako Gizarte Segurantzako langileen kopurua ere, jardueraren, kotizazio araubidearen eta sexuaren arabera. Eskatutako denbora erreferentzia hilerokoa izan da, 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetako hilabeteko azken egunean.
- **Errealitate Sozialaren Behatokia:** sinatutako kontratu kopuruaren eta kontratudun langileen kopuruaren hileroko datuak eskatu dira, eta azterlanean aplikatutako lau digituko EJSN kodeak hautatu dira, lanaldi motaren (osoa / partziala) eta modalitatearen (mugagabea / aldi baterakoa) arabera. Eskatutako denbora erreferentzia hilerokoa izan da, 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetan.

Prospekzioa

Egindako lanak: Inkesta bat egin zaie Nafarroako ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionaleri, sektoreari buruzko informazioa biltzeko helburuarekin, ehun produktiboan eta zehazki honako hauetan oinarrituta: sektorea osatzen duten enpresen kopurua, enplegu datuak, fakturazioa eta gastua. Xedea da datu fidagarriak lortzea, bilakaeraren jarraipena egin ahal izateko. NAPAR eta CLAVNA elkarte sektorialek parte hartu dute galdetegia bidaltzeko prozesuan, eta haien bazkideen artean preskriptore lanak egin dituzte; izan ere, galdetegia bidaltzeaz gain, parte hartzera animatu dituzte. Aholkularitza taldeak, halaber, parte hartzea indartu du telefono dei pertsonalizatuaren bidez, eta, horri esker, 48 enpresa eta profesionalak hartu dute parte.

Hausnarketa partekatuaren laborategia

Egindako lanak: Hausnarketa laborategi/tailer bat egin da Nafarroako ikus entzunezko sektoreko 15 enpresa eta profesionalekin, eta, horrez gain, parte hartu dute NAPAR eta CLAVNA elkarte sektorialetako ordezkariak. Helburua izan da sektorearen egoerari buruzko ideiak, hausnarketak, proposamenak, balorazioak eta ikaskuntza partekatuak sortzea eta hurrengo urteetan izanen dituen erronkei buruzko lehen ekintza ideiak jasotzea.

Amaierako txostena idaztea eta aurkezten publikoa

Informazio-input guztiak aztertu ondoren (bigarren mailako iturriak, inkesta, hausnarketa laborategia), aholkularitza taldeak txosten hau idatzi du, eta jendaurrean aurkeztuko da.

3. NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREN ERREALITATEA

Apartatu honetan Nafarroako ikus entzunezkoen sektoreko parametro batzuk (enpresak, enplegua, fakturazioa, etab.) aztertuko ditugu, ikuspegi orokorrarekin, sektorearen egungo egoera eta azken urteetako bilakaera ezagutzeko. Informazioa lortzeko prozesuan parte hartu dute Foru Komunitateko zenbait erakundek: Nafarroako Estatistika Institutua, Errealitate Sozialaren Behatokia, Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.

Jarraian, informazio horretatik abiatuta ateratako ondorio nagusiak aurkezten dira:

1. Enpresa ehuna

- 2022ko urtarrilean, ikus entzunezko sektorean guztira 144 enpresa eta 143 lokal zeuden. Lokal horien artean, 5 IFK Nafarroatik kanpoko enpresenak dira; horietatik 3k zinema emanaldien jarduerak lantzen dituzte, eta 20 eta 49 langile artean dituzte.
- Pandemiatik eratorritako krisia gorabehera, 2019an (pandemia aurreko egoera) eta 2022an % 26,3 hazi da sektoreko enpresen kopurua.
- Enpresen bi heren inguru (% 64,6) zinematografia eta bideo ekoizpenen jardueran sartzen dira.
- Enpresa ehuna, gehienbat, enpresa txikiek osatzen dute:
 - 2022an, sektoreko enpresen erdiak baino gehiagok (% 58,3) ez dute soldatako langilerik, eta soldatako langileak dituzten hamar enpresetatik bederatzik 10 langile baino gutxiago dituzte.
 - Soldatako langilerik gabeko enpresen artean, % 67,9 zinematografia eta bideo ekoizpenen jardueran sartzen dira, eta, aldiz, 20 langile baino gehiago dituztenak jarduera hauetan sartzen dira: zinema emanaldien jarduerak (1), telebista programen ekoizpena (1) eta beste programa informatiko batzuen edizioa (1).
 - Forma juridikoari dagokionez, % 41,7 pertsona fisikoak dira (autonomoak edo ondasun erkidegoak), eta gehienek ez dute soldatako langilerik (pertsona fisikoen % 86,7); aldiz, gainerakoak merkataritza sozietateak dira, eta horien artean ohikoenak dira sozietate mugatuak (merkataritza sozietateen % 61,9).

	ENPRESAK GUZTIRA	Kop.
		144
Jardueraren arabera	Zinematografia eta bideo ekoizpena	93
	Gainerako jarduerak	51
Enplegu bolumenaren arabera	Soldatako langilerik gabe	84
	Zinematografia eta bideo ekoizpena	57
	Soinu grabaketa eta musika edizioa	13
	Beste programa informatiko batzuen edizioa	7
	Irrati hedapena	5
	Zinema emanaldiak	1
	Zinematografia eta bideo banaketa	1
	Soldatako langileekin	60
	10 lanpostu baino gutxiago	48
	10-19 lanpostu	9
20-49 lanpostu	1	
50-99 lanpostu	2	
Forma juridikoaren arabera	Pertsona fisikoa	60
	Merkataritza sozietateak	84

Ikus entzunezko sektoreko enpresa kopuruaren bilakaera EJSNaren arabera, 2019-2022²

EJSN KOD.	EJSN	2019		2020		2021		2022		2019-2022
		ZK.	%	ZK.	%	ZK.	%	ZK.	%	
5821	Bideojokoen edizioa	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%	--
5829	Beste programa informatiko batzuen edizioa	7	6,1%	8	6,9%	8	6,6%	10	6,9%	42,9%
5912	Zinematografia postprodukzioko eta bideoetako jarduerak	2	1,8%	2	1,7%	2	1,7%	2	1,4%	0,0%
5914	Zinema emanaldien jarduerak	6	5,3%	6	5,2%	6	5,0%	7	4,9%	16,7%
5915	Zinematografia ekoizpeneko eta bideoetako jarduerak	66	57,9%	64	55,2%	79	65,3%	93	64,6%	40,9%
5916	Telebista programen ekoizpen jarduerak	2	1,8%	2	1,7%	3	2,5%	3	2,1%	50,0%
5917	Zinematografia eta bideo banaketan jarduerak	2	1,8%	1	0,9%	1	0,8%	2	1,4%	0,0%
5918	Telebista programen banaketa jarduerak	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%	0,0%
5920	Soinu grabaketako eta musika edizioko jarduerak	12	10,5%	14	12,1%	11	9,1%	15	10,4%	25,0%
6010	Irrati hedapeneko jarduerak	15	13,2%	16	13,8%	10	8,3%	11	7,6%	-26,7%
6020	Telebista programazio eta emanaldien jarduerak	2	1,8%	3	2,6%	1	0,8%	1	0,7%	-50,0%
Guztira		114	100,0%	116	100,0%	121	100,0%	144	100,0%	26,3%

Iturria: DENA, Nafarroako Enpresen Direktorioa

Ikus entzunezko sektoreko enpresen kopurua enplegu-mailaren arabera, 2019-2022

Soldatakoen tarteak	2019		2020		2021		2022	
	ZK.	%	ZK.	%	ZK.	%	ZK.	%
Batere ez	59	51,8%	69	59,5%	69	57,0%	84	58,3%
1-2	35	30,7%	28	24,1%	27	22,3%	35	24,3%
3-5	5	4,4%	5	4,3%	10	8,3%	10	6,9%
6-9	5	4,4%	4	3,4%	4	3,3%	3	2,1%
10-19	5	4,4%	5	4,3%	6	5,0%	9	6,3%
20-49	5	4,4%	4	3,4%	4	3,3%	1	0,7%
50-99	0	0,0%	1	0,9%	1	0,8%	2	1,4%
100-249	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%
250 edo gehiago	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%	0	0,0%
Oro har, guztira	114	100,0%	116	100,0%	121	100,0%	144	100,0%

Iturria: DENA, Nafarroako Enpresen Direktorioa

Ikus entzunezko sektoreko enpresen kopurua forma juridikoaren arabera, 2019-2022

Errenkada etiketak	2019		2020		2021		2022	
	ZK.	%	ZK.	%	ZK.	%	ZK.	%
Pertsona fisikoa	39	34,2%	42	36,2%	47	38,8%	60	41,7%
Sozietate mugatua	38	33,3%	38	32,8%	42	34,7%	52	36,1%
Sozietate anonimoa	8	7,0%	9	7,8%	7	5,8%	7	4,9%
Sozietate kooperatiboa	0	0,0%	3	2,6%	2	1,7%	4	2,8%
Beste forma juridiko batzuk	29	25,4%	24	20,7%	23	19,0%	21	14,6%
Oro har, guztira	114	100,0%	116	100,0%	121	100,0%	144	100,0%

² Adierazi behar da Nafarroan badaudela bideojokoen azpisektorean lan egiten duten enpresak, baina, beste EJSN batzuetan daudenez, ez dira jaso azterlan honetan; izan ere, EJSN horiek sartuz gero, analisisan ikus entzunezkoak ez diren beste sektore batzuetako enpresak sartuko liriteke, eta horrek datuak distorsionatuko lituzke.

2. Enplegua

2.1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

- 2022ko lehen hiruhilekoa amaitzean, ikus entzunezko sektorean 763 pertsona zeuden Gizarte Segurantzaren afiliatuta.
- Horien artean, 467 gizon (% 61,2) eta 296 emakume (% 38,8) zeuden.
- Afiliazio araubideari dagokionez, lautik bat (% 25,6) atxikita dago Langile Autonomoen Araubide Berezira (LAAB), eta gainerakoak Araubide Orokorrean.
- Bilakaerari begira, afiliazioa % 16 hazi da 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean (% 16,4 Araubide Orokorrean eta % 14,7 LAABan).
- Afiliazioaren % 83 sektorea osatzen duten 11 jardueretako bostetan biltzen da.
- Zinematografia ekoizpeneko eta bideoetako jarduerak dira emakume kopuru handienari lan ematen diotenak (afiliatutako emakumeen % 30) ikus entzunezko sektorean; hala ere, zinema emanaldien jarduerak da emakume gehiago erregistratu dituen bakarra (% 60,6 emakumeak eta % 39,4 gizonak).

Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopurua afiliazio araubidearen arabera

	2019				2020				2021				2022
	1H	2H	3H	4H	1H	2H	3H	4H	1H	2H	3H	4H	1H
Arau. Orokorra	477	513	505	513	502	521	522	475	505	529	542	546	553
Artisten Arau. Orok.	11	37	16	10	35	73	107	21	10	15	9	7	15
LAAB	170	173	181	180	177	177	178	182	186	189	186	196	195
Oro har, guztira	658	723	702	703	714	771	807	678	701	733	737	749	763

Iturria: Nastat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren informaziotik abiatuta.

Afiliazioaren banaketa jardueraren arabera, 2022ko martxoaren 31n

EJSN KOD.	EJSN	ZK.	%
5821	Bideojokoen edizioa	31	4,1%
5829	Beste programa informatiko batzuen edizioa	132	17,3%
5912	Zinematografia postprodukzio eta bideoetako jarduerak	44	5,8%
5914	Zinematografia erakusketako jarduerak	104	13,6%
5915	Zinematografia ekoizpeneko eta bideoetako jarduerak	190	24,9%
5916	Telebista programen ekoizpen jarduerak	78	10,2%
5917	Zinematografia banaketako eta bideoetako jarduerak	7	0,9%
5918	Telebista programen banaketa jarduerak		0,0%
5920	soinu grabaketako eta musika edizioeko jarduerak	34	4,5%
6010	Irrati hedapeneko jarduerak	130	17,0%
6020	Telebista programazio eta emanaldien jarduerak	13	1,7%
Guztira		763	100%

Iturria: Nastat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren informaziotik abiatuta.

Afiliazioaren banaketa, sexuaren arabera, ikus entzunezko sektoreko jardura bakoitzean, 2022ko martxoaren 31n

EJSN KOD.	EJSN	Gizonak	Emakumeak
5821	Bideojokoaren edizioa	77,4%	22,6%
5829	Beste programa informatiko batzuen edizioa	74,2%	25,8%
5912	Zinematografia postprodukzio eta bideoetako jarduerak	65,9%	34,1%
5914	Zinematografia erakusketako jarduerak	39,4%	60,6%
5915	Zinematografia ekoizpeneko eta bideoetako jarduerak	53,2%	46,8%
5916	Telebista programen ekoizpen jarduerak	53,8%	46,2%
5917	Zinematografia banaketako eta bideoetako jarduerak	57,1%	42,9%
5918	Telebista programen banaketa jarduerak	-	-
5920	soinu grabaketako eta musika edizioko jarduerak	94,1%	5,9%
6010	Irrati hedapeneko jarduerak	68,5%	31,5%
6020	Telebista programazio eta emanaldien jarduerak	53,8%	46,2%
Oro har, guztira		61,2%	38,8%

Iturria: Nastat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren informaziotik abiatuta.

2.2. Sinatutako kontratuak³

- 2022ko lehen seihilekoan zehar, ikus entzunezko sektoreko 1.597 lan kontratu erregistratu dira enplegu bulegoetan.
- Lehen seihileko honetan lortutako kontratazio bolumena 2021eko kontratazio osoaren % 73,3 da (2.180 kontratu sinatu dira). Horri dagokionez, adierazi behar da 2022ko ekainean aldi baterako 853 kontratu sinatu zirela, ohikoa baino zifra handiagoa: baliteke filmaketa edo jaialdiren batek eragin izana hori. Ondorioz, lehen seihilekoaren amaieran, errotazioa 1,55ekoa izan da (aldi baterako kontratua duten pertsonen sinatutako kontratuen batez besteko kopurua), 2021eko datua baino lau hamarren gehiago.
- Kontratazio datuek ez dute aldaketa nabarmenik izan azken lan erreformaren ondoren, eta, sektore guztietan, oro har, aldi baterako kontratazioak kontratazio mugagabe edo aldizkako langile finko bihurtu dira.
- 2022an sinatutako kontratuen % 5,6 mugagabeak izan ziren, eta % 94,4 aldi baterakoak; proportzioa 2019koaren antzekoa da, baina, 2020 eta 2021 urteekin alderatuz gero, desberdintasuna handiagoa da, ekitaldi horietan pandemiak kontratazioan izan zuen eragin handiagatik, zalantzarik gabe.
- Kontratuen % 45,3 emakumeek sinatu zituzten, eta % 54,7 gizonen. Azpimarratu behar da emakumeek kontratu mugagabe gehiago sinatu zituztela (% 58,4).
- Lanaldi motaren arabera, sinatutako kontratuen % 46,2 lanaldi osokoak izan ziren, % 53,5 partzialak eta gainerako % 0,3 aldizkako finkoak. Deigarria gizonen (% 56,6) emakumeen (% 49,8) baino lanaldi partzialeko kontratu gehiago izan dituztela.

³ Iturrian ez da jasotzen lau EJSN digituen araberako informazio berezia; beraz, datuak 58., 59. eta 60. kodeei dagozkien jardura guztiei buruzkoak dira, izan ikus entzunezko sektorekoak ala ez.

Ikus entzunezko sektorean sinatutako kontratuak, kontratu motaren arabera

	2019	2020	2021	2022 (2022ko ekainean bilduta)
MUGAGABEA	132	59	95	89
ALDI BATERAKOA	2152	1887	2085	1508
Oro har, guztira	2284	1946	2180	1597

Iturria: Errealitate Sozialaren Behatokia

Ikus entzunezko sektorean sinatutako kontratuen banaketa sexuaren eta kontratu motaren arabera (2022ko ekainean bilduta)

	GIZONA	EMAKUMEA
MUGAGABEA	41,6%	58,4%
ALDI BATERAKOA	55,5%	44,5%
Oro har, guztira	54,7%	45,3%

Iturria: Errealitate Sozialaren Behatokia

Errotazioaren bilakaera

	2019	2020	2021	2022 (2022ko ekainean bilduta)
Aldi baterako kontratuak	2152	1887	2085	1508
Kontratutako pertsonak	1582	1604	1848	971
Errotazioa	1,36	1,18	1,13	1,55

Iturria: Errealitate Sozialaren Behatokia

Kontratuen banaketa lanaldi motaren arabera (2022ko ekainean bilduta)

	GIZONAK	EMAKUMEA	GUZTIRA
OSOA	43,2%	49,8%	46,2%
PARTZIALA	56,6%	49,8%	53,5%
ALDIZKAKO FINKOA	0,1%	0,4%	0,3%
Oro har, guztira	100,0%	100,0%	100,0%

Iturria: Errealitate Sozialaren Behatokia

3. Enpresen ekonomia

- 2021ean, sektoreko enpresek 31,3 milioi euro inguru fakturatu zituzten (4), eta enpresako batez besteko fakturazioa 260.000 eurokoa izan zen.
- Nahiz eta ez dagoen jardueraren araberako daturik, zinematografia erakusketaren kasuan Kultura Ministerioaren datuek beherakada nabarmena islatzen dute diru bilketan, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, eta 2021ean 2019an baino bost milioi euro inguru gutxiago bildu ziren (-% 57,6).
- Alde horretatik, adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitateak likidatutako gastua, zinemaren sektoreko transferentzia korronteen 4. kapituluan, nabarmen hazi dela azken urteetan, eta 2020an 1.170.000 euroko zifrara heldu zen.

Zinema aretoen diru bilketaren bilakaera 2018-2021

	2018	2019	2020	2021
Balio absolutua (milioi euro)	8,5	8,5	2,8	3,6
Ikusleko batez besteko gastua (eurotan)	5,5	5,4	5,4	5,4
Biztanleko batez besteko gastua (eurotan)	13,1	13,1	4,3	5,5

Iturria: MCUD. Zinematografiaren eta Ikus Entzunezko Arteen Institutua. Zinematografia estatistika: ekoizpena, erakusketa, banaketa eta sustapena.

Nafarroako Foru Komunitateak zinemaren sektoreko transferentzia korronteen 4. kapituluan likidatutako gastuaren bilakaera (mila eurotan)

	2017	2018	2019	2020
Zinema	188	794	937	1.170

Iturria: MCUD. Kulturako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika, MHFP. Autonomia erkidegoetako aurrekontuen likidazio estatistika.

⁴ Foru Ogasunak sortutako BEZari buruz emandako datuak interpretatzeko, kontuan hartu behar da Ogasunak ustiapenetik kendu zituela EJSN batean baino gehiagotan inskribatutako aitortzaileak, baldin eta EJSN hori ez badator bat ikus entzunezko sektorearen barruan jasotakoekin. Ondorioz, kanpoan gelditu dira, adibidez, zinematografia erakusketako aretoak, ostalaritzarekin lotutako EJSNak ere badituztelako. Hori dela eta, beste iturri batzuk erabili dira, adibidez zinematografia estatistika: ekoizpena, erakusketa, banaketa eta sustapena, kulturako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika (MHFP) eta autonomia erkidegoetako aurrekontuen likidazio estatistika, guztiak Kultura Ministerioarenak. Bestalde, Foru Ogasunak erabiltzen dituen EJZ epigrafeen eta aztertu diren EJSNen arteko loturak identifikatzen saiatu dira, Zerga Agentziaren bihurtuaren bidez; beraz, baliteke jardueraren bat Ogasunak emandako informaziotik kanpo gelditu izana.


4. NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREKO ENPRESA ETA PROFESIONALEI EGINDAKO KONTSULTAREN EMAITZAK

1.- PARTE HARTZEA ETA EZAUGARRIAK

1.1.- ZENBAT ENPRESA ETA PROFESIONALEK HARTU DUTE PARTE?

Nafarroako ikus entzunezko sektoreko 48 enpresa eta profesionalak hartu dute parte inkestan, hau da, Nafarroan erregistratutako enpresa eta profesional autonomoen % 39,7⁵.

Zinematografia eta bideo ekoizpena da ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesional gehienen jardura nagusia (% 77,1), DENA direktorioan erregistratutako datuekin bat (gehienak, % 65,3, bat datoz jardura horrekin). Logika horri jarraikiz, balio katearen dimentsioen artean, enpresa eta profesionalen ehuneko handienak ekoizpen eta sorkuntzan kokatu dute haien jardura.



Oinarria: 48 enpresa eta profesional
Oharra: ehunekoen batura ez da 100, erantzun anitzeko galdera baita.


⁵ Iturria: Nafarroako Enpresen Direktoria (DENA), 2021.

1.2.- ZEINTZUK DIRA PARTE HARTU DUTEN ENPRESA ETA PROFESIONALEN EZAUGARRI NAGUSIAK?

Hiriburuan eta inguruetan dago ikus entzunezko enpresa eta profesionalen kopuru handiena. Inkestari erantzun dioten sektoreko 10 enpresa eta profesionaletatik 8 Iruñean eta inguruko beste udalerrri batzuetan daude.


Eragin eremu nazionala da ohikoena. Kolektiboko kideen % 54,2k lurralde nazional osoa hartzen duen eragin eremuan egiten dute lan, eta % 52,1ek Foru Komunitatean. Hala ere, nazioartekotze maila azpimarratu behar da: % 41,7.

Nafarroako ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalak, kokapenaren arabera



Oinarria: 39 enpresa eta profesional


Ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalak, eragin eremuaren arabera



Oinarria: 48 enpresa eta profesional

Nahiko sektore gaztea. Enpresa gehienak/profesional gehienek (% 39,6) azken 5 urteetan sortu dira/hasi dute jarduera, nahiz eta badagoen 20 urtetik gorako ibilbide profesionala duten enpresen talde txiki bat ere.


Enpresa sortu zen/jarduera hasi zen duela...



Oinarria: 48 enpresa eta profesional

Sozietate mugatua da forma juridikorik ohikoena, galdetegiari erantzun dioten enpresen erdiak baino gehiagok baitute forma hori; hala ere, profesional autonomoen ehuneko esanguratsua ere badago. Bestalde, inkestari erantzun dioten enpresa eta profesional guztiak arlo pribatukoak dira.


Nafarroako ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalak, forma juridikoaren arabera



Asoziazionismo maila handia enpresa eta profesionalen artean.

10etik 8 Nafarroako Ikus Entzunezkoen Klusterreko kideak dira, eta 10etik ia 7 NAPAR Nafarroako Ikus Entzunezkoen Ekoizpeneko Enpresa eta Profesionalen Elkarteko kideak. Hala ere, badago gaur egun elkarterik ez duen kolektibo bat. Sektoretik kanpoko beste elkarte batzuk adierazi dituztenen artean Ibaia (Ikus Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte), Apika (Arabako Ikus Entzunezko Ekoizle Burujabeen Elkarte) eta Publizitate Agentzien Elkarte nabarmentzen dira.

Nafarroako ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalak, sektoreko elkarten edo beste batzuen arabera




Oharra: ehunekoen batura ez da 100, erantzun anitzeko galdera baita

Oinarria: 48 enpresa eta profesional.

Genero berdintasunarekiko konpromisoa indartzeko beharra.

Inkestari erantzun dioten ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalen % 70,8k ez dute berdintasun planik.

Ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalak, berdintasun plana izatearen arabera



2.- ENPLEGUA

Gizonen presentzia handiagoa ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalen artean, batez ere kudeatzailertzan eta sail teknikoetan. Inkestari erantzun dioten enpresa eta profesionalak 235 lanpostu dituzte guztira, % 56,4 gizonenak eta % 43,6 emakumeenak. Gizonek ia arlo guztietan dute presentzia, batez ere kudeatzailertzan (% 73,7) eta sail teknikoetan (% 75,6); bestalde, emakume gehiago daude kudeaketa eta administrazio arloan, eta haien presentzia txikiagoa da kudeatzailertzan eta sail teknikoetan.


Nafarroako ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalen lanpostuak arloaren eta sexuaren arabera (ehuneko horizontalak)

Arloa	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Kudeatzailertza	26,3%	73,7%	100,0%
Administrazioa/Kudeaketa	70,6%	29,4%	100,0%
Egileak	40,0%	60,0%	100,0%
Artistak	0,0%	100,0%	100,0%
Sormen burutzak	37,5%	62,5%	100,0%
Sail teknikoa	24,4%	75,6%	100,0%
Marketina/Negoio garapena	67,7%	32,3%	100,0%
Beste batzuk	70,6%	29,4%	100,0%
GUZTIRA	43,6%	56,4%	100,0%

Oinarria: 44 enpresa eta profesional

Mikroenpresen (10 langile baino gutxiago) presentzia esanguratsua dago galdetegiari erantzun diotenen artean. Inkestan parte hartu duten enpresa eta profesionalen % 86,4k 10 lanpostu baino gutxiago dituzte; % 38,6k lanpostu bakarra dute, eta, kolektibo horretan, % 64,7 langile autonomoak dira.

Nafarroako ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalak, enplegu bolumenaren arabera




Oinarria: 44 enpresa eta profesional

Galdetegiari erantzun dioten enpresa eta profesionalen % 27k merkataritza kontratuak dituzte gaur egun, eta, guztira, 50 kontratu daude modalitate horretan. Enpresa horien erdiak 5 lanpostu baino gutxiago dituzte (oinarria: 37 enpresa eta profesional).

Aldi baterako langileen erdiak, batez bestean, hilabetetik gorako kontratuak izan dituzte. Aldi baterako langileen % 30ek egunak iraun dituzten kontratuak izan dituzte, eta % 10 inguruk aste batzuetatik hilabetera artekoak.


Aldi baterako langileak, kontratuaren batezbesteko iraupenaren arabera (2021)



Oinarria: 11 enpresa eta profesional

Etorkizun positiboa sektoreko enpleguaren bilakaeran, ez ordea plantilletako emakumeen presentzian. Jasotako erantzunen arabera, enpresa eta profesionalak aurrekusi dute hurrengo urtean plantillak nabarmen handituko direla (103 enplegu gehiago 2023an, aurreko urtearekin alderatuta, hau da, % 49,3ko igoera). Hala ere, aurrekusi da 2023an plantilletako emakumeen presentziak behera eginen duela, zehazki 2022an baino % 9,8 gutxiago.

Lan kontratadun plantilla osoaren bilakaera. 2019-2023 (plantilla osoa abenduaren 31n)




Oinarria: 23 enpresa eta profesionalen batezbestekoa enpleguaren bilakaerarako eta 15eko batezbestekoa emakumeen ehunekoarako enplegu osoan.

3.- ADIERAZLE EKONOMIKOAK

3.1.- FAKTURAZIOA

Aurreikusi da enpresa eta profesionalen jarduerak sortutako diru sarrerak handituko direla 2022an, aurreko urtearekin alderatuta. 50.000 eurotik beherako diru sarreren tartean izan ezik, aurreikusi da 2022an diru sarrerak handituko direla gainerako tartetean, batez ere tarte handienean (500.000 eurotik gorako diru sarrerak). Hazkundearen aurreikuspena % 57,1ekoa da.

Jarduerak sortutako diru sarreren bilakaera. 2019-2022




Oinarria: 40 enpresa eta profesional batez bestean.

3.2.- GASTUAK

Jarduerari dagokio sektoreko enpresa eta profesionalen gastuaren zati handiena. Gastuaren erdia inguru jarduerari dagokio, nahiz eta langileen gastua % 48 inguru handitu den azken hiru urteetan; bigarren postuan daude jarduera gastuak, eta % 11 handitu dira azken hiru urteetan.

Ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalen egindako gastuaren bilakaera, gastu kontzeptuaren arabera. 2019-2021




Oinarria: 25 enpresa eta profesional

Gastuaren hiru laurden inguru Foru Komunitatean gelditzen dira. 2021ean, inkestari erantzun dioten enpresa eta profesionalen gastuaren bolumen osoaren % 72,1 Nafarroan egin zen, % 22,4 Espainiako gainerako lurraldean eta % 5,8 atzerrian.

3.3.- JARDUERAREN EPE ERTAINEKO AURREIKUSPENAK


Jarduerari dagokionez, aurreikuspenak egungoen antzekoak edo hobek dira. Inkestan parte hartu duten enpresa eta profesionalak adierazi dute epe ertaineko aurreikuspenak egungoak baino hobek direla (% 48,6), edo, gutxienez, antzekoak (% 40).

Ikus entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalen gastuaren bolumenaren banaketa, tokiaren arabera (2021)



Oinarria: 32 enpresa eta profesional

Enpresa eta profesionalen jardueraren epe ertaineko aurreikuspenak



Oinarria: 35 enpresa eta profesional


4.-

NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREN EGOERAREN BALORAZIOA

4.1.- NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREN LEHIAKORTASUN MAILA

Sektorea lehiakorra da autonomia erkidego guztiak kontuan hartuta. Inkestari erantzun dioten enpresa eta profesionalen arabera, Nafarroako ikus entzunezko sektoreak lehiakortasun maila ertaina edo handia du (% 75) beste autonomia erkidego batzuetako errealitatearekin alderatuta. Lehiakortasun propioari dagokionez, enpresa eta profesionalak uste dute ertaina edo handia dela (% 77,5) Nafarroako sektore osoa kontuan hartuta.

Nafarroako ikus entzunezko sektorearen eta bertako enpresa eta profesionalen lehiakortasun mailaren balorazioa




Oinarria: 40 enpresa eta profesional

4.2.- NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNEAN ERAGITEN DUTEN ALDERDIAK

Balorazio onena lortu duten alderdiak pertsonen kualifikazioa eta babes instituzionala izan dira, eta enpresen tamainak izan du balorazio txarrena ikus entzunezko sektorearen lehiakortasunean. Inkestan parte hartu duten enpresa eta profesionalen arabera, ikus entzunezko sektorearen lehiakortasunean eragin positiboa duten lau alderdi daude, eta 4 puntu inguru lortu dituzte: pertsonen kualifikazioa, babes instituzionala, kalitate maila eta ikus entzunezko jardueraren aplikazioen zabaltasuna. Gainerako alderdiek 4 puntu baino gutxiago lortu dituzte, eta enpresen tamainak lortu du puntuazio txikiena.

Alderdi jakin batzuek Nafarroako ikus entzunezko sektorearen lehiakortasunean duten eraginaren balorazioa



Oinarria: 41 enpresa eta profesional

4.3.- NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREN INDARGUNEAK, AHULEGUNEAK ETA ERRONKAK

A H U L G U N E A K :

Enpresa/profesionalen profilarekin lotuta:

- Atomizazioa
- Tamaina txikia, pertsona bakarrekoak, proiektu handiak jorrazeko ezintasuna
- Profesionalizazioa
- Prestakuntza
- Baliabide tekniko urriak
- Nafarroatik kanpoko proiektu eta enpresekiko mendekotasun handia

Ekoizpen ingurunearekin lotuta:

- Ez edukitzea merkatua dinamizatzeko banaketa leiho eragile propiorik: telebista publikoa, plataformak, jaialdiak...
- Ehun industrial/logistiko ahula (zerbitzuak, hornitzaileak) enpresa handiak erakartzeko
- Negozio txikia Foru Komunitatean

Babes instituzionalarekin/finantzaketarekin lotuta:

- Dirulaguntzen, zerga pizgarrien eta inbertsioen gabezia
- Nafarroara lanera etortzera animatzen duten eta filmaketa aukerei buruzko informazioa ematen duten kanpainen gabezia...
- Baliabide publikoekiko mendekotasuna murriztuko duen kapital pribatuaren gabezia
- Ekoizpen eragile kudeatzailea eta negozio ikuspegi globala dituzten enpresen gabezia (proiektuz proiektu bizirauten dute, epe luzeko plan solidorik gabe, eta horrek finantza muskulu propioa izatea mugatzen du).

I N D A R G U N E A K :

Enpresa eta profesionalenak:

- Egokitzeko gaitasuna, sektorearen malgutasuna
- Kohesio gaitasuna, aliantzak, batasuna
- Profesionaltasuna eta **kualifikazioa**
- Ideiak sortzeko gaitasuna, talentua, potentziala, harrobia
- Esperientzia eta egiten jakitea
- Indartsuak animazioaren eta bideojokoen arloan
- Enpresa kopurua
- Teknologiaren eguneratze maila

Maila instituzionalean:

- Sektorea egonkortzeko borondate politikoa
- **Zerga pizgarriak**, fiskalitatea
- Irisgarritasuna (komunitate txikia izateak hori errazten du)
- Komunikazio publiko-pribatu ona, besteak beste finantzaketa tresna solidoak indartzeko
- Babes instituzional handia eta erakundeekiko harreman errazagoak
- Unibertsitateak

Lurralde mailan:

- Kokapen bakarrak eta estilo aldaketak
- Paisaien aniztasuna

H U R R E N G O U R T E E T A R A K O E R R O N K A K :

Merkatua eta ehun produktiboa dinamizatzea:

- Proiektu handiak jorratzea
- Nazioarteko enpresak erakartzea eta zerbitzuak ematea
- Sektore estrategiko bihurtzeko haztea
- Logistika eta zerbitzuak indartzea, kalitateko erantzuna emateko Nafarroara etortzen direnen beharrei
- Ekoizpen propioa handitzea, Nafarroaren identitate zeinuekin
- Banaketa leiho propioak finkatzea, sektorean inbertitzeko baliabideekin
- Filmaketak lortzea eta edukia sortzea
- Finantzaketa eredu alternatibo berriak bilatzea, sektorearen jarraitutasuna bermatzeko lurraldean
- Nafarroako ikus entzunezkoen gordailua sortzea
- Egungo hedapen plataforma guztiekin (telebista, Movistar +, Netflix, Amazon...) lan egitea publiko zabalagora iristeko
- Kontsumo ohitura berrietara egokitzea

Lanbide kualifikazioa/prestakuntza eta enpresak hobetzea:

- Eduki digitalak eguneratzea
- Teknologiara egokitzea
- I+G berrikuntza
- Komunitatean oraindik ez dauden eta beharrezkoak diren zerbitzuen espezializazioaren alde egitea, batez ere hauekin lotuta: kamera materialen renting, argiztapena, soinua eta postproduktzio prozesuak/proiektuak amaitzea.
- Ekipamendu eta baliabide teknologikoetako inbertsioak

Babes instituzionala:

- Zergen arloan eta beste erkidego batzuetako telebistekin lehiatzea
- Nafarroa zaintzea, legeak egiten enpresa handiek lankidetzara eskatzeko lurraldeko enpresei

5. SEKTOREAREKIKO HAUSNARKETA LABORATEGIAREN EKARPENAK

Azterlanari ikuspegi kualitatiboago bat emateko xedearekin, hausnarketa tailer/laborategiaren bidez partekatutako ideiak, hausnarketak, proposamenak, balorazioak eta ikaskuntzak sartu dira, eta parte hartu dute Nafarroako ikus entzunezko sektoreko 15 enpresa eta profesionalak, NAPAR eta CLAVNA elkarte sektorialetako ordezkariak gain. Ekarpene horiek inkestatik ateratako informazio inputa eta bigarren mailako iturrietako informazioa osatzen dute, eta lagungarriak dira informazio kuantitatiboa egonkortzeko.

Laborategian, inkestaren datu esanguratsuenen eta fitxa batzuen aurkezpenean oinarrituta, sektoreak aurrean dituen zailtasun eta erronkei buruzko hausnarketa partekatua egin da, egungo interakzio testuingurua identifikatzeko, eta, bestetik, hurrengo urteetan erronka horiei konponbideak emateko abiapuntutzat hartuko diren ideiak biltzeko.

Beraz, enpresa eta profesionalak eskatu zaie banaka eta taldeka hausnartzeko azterlanean identifikatutako hiru dimentsiori buruz:

- Nafarroako ikus entzunezko sektorearen erronkak hurrengo 5/10 urteetan, ziurgabea, aldakorra eta geroz eta lehiakorragoa den ingurune batean
- Sektorearen eta bertako enpresen lehiakortasuna hobetzea, atomizazio handia eta berrikuntza teknologiko eta ez teknologikoaren beharra kontuan hartuta
- Palanka estrategia eta proiektuak onuragarriak izan daitezke enpresen arteko lankidetzarako, bai sektorearen barruan eta bai beste sektore batzuekin (sorkuntza industriak, turismoa...)

Jarraian, laborategian jasotako ekarpenak laburbiltzen dira (hitzez hitz):

SEKTOREA PROIEKTATU, IKUSARAZI ETA BERE BALIOA AZPIMARRATZEA

Administrazio Publikoen aldetik

- Abian jartzea gertuko ikus entzunezko edukien agregatzailea
- Enpresa eragile bat bultzatzea (edukien agregatzailea, akordioa EITBrekin...)
- Telebista eta merkatuetarako sarbidea erraztea
- Zerga pizgarriak handitzea eta pizgarri espezifikoa sustatzea Nafarroa proiektatu eta sektorea indartuko duten ekoizpen handientzat eta 3 urtetik gorako ekoiztetxe nafarrentzat
- Lurraldea bultzatzea maila komertzialean, azoka eta bisita komertzialetan (adibidea: Canarias Film Commission)
- Nazioartekotzea babestea eta proiektuetarako laguntza eta dirulaguntzak indartzea
- Administrazioaren eta sektorearen arteko komunikazio egonkor eta gardena sustatzea
- Sektorea ongi ezagutzea, ikusarazi ahal izateko
- Sustapen tresnak sortzea: jaialdiak, barne ekitaldiak eta beste lurralde batzuekiko harremanak

Enpresa eta profesionalen aldetik

- Enpresen arteko lankidetzak sustatzea, sektoreari hazteko aukera emanen dioten fusio eta aliantzak sortzeko, anbizio handiagoko proiektuekin: horietan parte hartzen ahalko dute tamainagatik proiektu handiak lortu ezin dituzten enpresek
- Nazioarteko eragile handiekiko akordioak sustatzea
- Ekintza komertzialak bultzatzea
- Enpresa estrategia eta sustapenaren arloko prestakuntza/aholkularitza jasotzea
- Administrazioarekiko etengabeko topaketak ahalbidetzea
- Enpresei proiektuak jakinaraztea
- Enpresak elkarrekin inplikatzeko modu proaktiboan, eta asoziazionismoa sustatzea
- Beste finantzaketa iturri pribatu batzuk bilatzea (fiskalitatearen arloko prestakuntza behar da)
- Atzerriko egonaldiak sustatzea, ikus entzunezko beste ekosistema batzuetan murgiltzeko eta talentua trukatzeko

Elkarteen / beste eragile batzuen aldetik

- Enpresa/profesionalak harremanetan jartzeko eta elkar ezagutzeko denbora eta espazioak sustatzea, konfiantza giroa sortzeko eta fusioak, lankidetzak, eta abar ahalbidetzeko.
- Aliantzak eta lankidetzak proiektuak estimulatzea
- Nazioarteko merkatuetako presentzia handitzea
- Ekintza komertzialak bultzatzea
- Beste sektore batzuekin lankidetzan aritzea, adibidez turismoa, komertzioa, etab.
- Administrazioekiko bitartekaria izatea, enpresa ehunaren beharren bozeramaile gisa
- Enpresei aukeren berri ematea
- Enpresen arteko aholkularitzak kudeatzea

NAFARROAKO IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREN ETA BERTAKO ENPRESA/PROFESIONALEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Administrazio Publikoen aldetik

- Gertuko ikus entzunezko edukien agregatzailearen proiektu estrategikoa abian jartzea eta sistematikoki elikatzea, funtsak nahiz babes ekonomiko erreal eta argia emateaz gain (aurrekontu partidarekin)
- Oro har, burokrazia eta dirulaguntzen izapideak erraztea; enpresa txikiak dira, kudeaketako espezializazio txikiarekin
- Prozesuak sektorearen errealitatera eta erritmoetara egokitzea
- Enpresa elkarteak inplikatzeko dituzten proiektuak sustatzea
- Nafarroako I+G legedia aldatzea, ikus entzunezko sektorera egokitzeko
- Ikus entzunezko I+Gera bideratutako laguntza espezifikoak sustatzea
- Ikus entzunezko Hub bat sortzea, non enpresak eta profesionalak lankidetzan arituko diren, elkarrekin lan eginen duten eta komunitate bat osatuko duten, baliabide teknikoak eta giza baliabideak optimizatzen eta enpresa bakoitzaren inbertsio indibiduala murrizten (zerbitzu batzuk erkidetzea)

Enpresa eta profesionalen aldetik

- Enpresen arteko batasun eta fusioak sustatzea
- Lankidetzako proiektuak, koprodukzioak eta aliantzak sustatzea, interes partikularren gainetik
- Partzuergoak eta I+G unitateak osatzeko aliantzak sustatzea
- Berrikuntzako inbertsioak handitzea
- Lan espazio dinamikoagoak sortzea
- Talentuaren trukea sustatzea; proposamen bat izan daiteke orduen poltsa baten bidez; enpresa/profesional batek zerbitzu bat ematen du beste enpresa/profesional baten zerbitzu baten truke (elkarri laguntzea)

Elkarteen / beste eragile batzuen aldetik

- Enpresen arteko harremanak sustatzea, lankidetzako proiektuak edo koprodukzioak jorratzeko eta sinergiak ahalbidetzeko
- Prestakuntza ekintzak bultzatzea arlo juridikoan, fiskalitatean eta kudeaketan
- Ekintzaitza bultzatzea
- Sektorearen beharrak identifikatzea, enpresa profilak egiteko
- Laguntza praktikoa ematea, enpresa eta profesionalen beharrei aurre egiteko; proposamen bat izan daiteke zerbitzu komun zentralizatuen sistema bat

ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZAREN ALDE EGITEKO PALANKA ESTRATEGIA ETA PROIEKTUAK, BAI SEKTOREAREN BARRUAN ETA BAI BESTE SEKTORE BATZUEKIN (SORKUNTZA INDUSTRIAK, TURISMOA...)

Administrazio Publikoen aldetik

- Abian jartzea gertuko ikus entzunezko edukien agregatzailea eta sistematikoki elikatzea
- Sektoreak konektatzea laguntza zehatzen bidez (adibidez, Turismo arloak ikus entzunezko baliabideetan inbertitzea); laguntzen bidez beste sektore batzuei laguntzea Nafarroako ikus entzunezkoak kontratatzen
- Zinema turismoaren garapen plan bat bultzatzea

Enpresa eta profesionalen aldetik

- ABEEak sustatzea proiektu jakinetarako
- Sektorearen dinamizazioa sustatzea, konexio horiek ahalbidetzeko
- Filmaketak bideratu eta Nafarroako ehun produktiboa (ikus entzunezkoa) kontratatuko duen zerbitzu enpresa bat bultzatzea
- Prestakuntza eta administrazio nahiz zerga erraztasunak ematea

Elkarteen / beste eragile batzuen aldetik

- Administrazio Publikoari eskatzen jarraitzea edukien agregatzailearen gaia jorratzeko
- Enpresen arteko lankidetzak ahalbidetzeko espazioak sortzea
- Trakzioa sortzeko proiektuak ahalbidetzea
- Enpresek elkar ezagutzea ahalbidetzea
- Klusterren arteko topaketa dinamikoak bultzatzea
- Beste sektore batzuetan ikus entzunezko sektorea sustatzea
- Klusterren arteko proiektuak sustatzea: nekazaritza, energia berriztagarriak, osasunaren sektorea
- Informazioa, ezagutzak eta esperientziak partekatzeko espazioak ahalbidetzea

6. ONDORIOAK

Txosten honetan jasotako emaitzak balio handiko informazio inputak dira zenbait dimentsiotan (ehun produktiboa, enplegua, fakturazioa, lehiakortasuna, etorkizuneko aurreikuspenak...); Nafarroako ikus entzunezko sektorearen errealitatearen berri ematen digute, baita ahulguneen, hobetzeko arloen, indarguneen eta hurrengo urteetan aurrean izanen dituen erronken berri ere.

Azterlana egiteko lan prozesuak agerian jarri du, halaber, eragileen arteko lankidetzaren espiritua, lurraldeko ikus entzunezko sektorea ikusarazi, garatu eta haren balioa azpimarratzeko helburu komun batzuetan oinarrituta.

Informazio horretatik abiatuta, inplikaturako eragileek (enpresak, profesionalak, eragile sektorialak eta administrazio publikoak) datu interesgarriak eta balio handikoak dituzte ildoak lantzen eta sakontzen jarraitzeko, sektorea garatzen jarraitzeko beharrezko ibilbide orria ezartzeko xedearekin.